

EHUko euskarazko graduaren diagnostikoa eta hizkuntza eskubideen zapalkuntza

**Bizkaiko Campuseko (Leioa)
hautazko ikasgaiak ardatz**



**Ireki Lei(h)oa Euskarari
Euskara Taldea
2025/2026**

SARRERA.....	2
HELBURUAK.....	3
METODOLOGIA.....	3
EUSKARA PLANAREN AZTERKETA.....	5
DATU KUANTITATIBOAK.....	11
• Gizarte eta Komunikazio Zientzien fakultatea.....	12
• Hezkuntza Fakultatea.....	13
• Arte Ederren Fakultatea.....	14
• Zuzenbide Fakultatea.....	15
• Lan Harremanen Fakultatea.....	15
• Zientzia eta Teknologia Fakultatea.....	16
• Medikuntza Fakultatea.....	18
AZTERKETA KUALITATIBOA.....	19
LEHENENGO ELKARRIZKETATUA - INTERPRETAZIOA.....	19
EUSKARAZ IKASTEKO ARRAZOIAK ETA OZTOPOAK.....	19
IRAKASLEEN PAPERAK.....	20
PERTZEPZIO SOZIOLINGUISTIKOA.....	20
BIGARREN ELKARRIZKETATUA - INTERPRETAZIOA.....	21
HAUTAZKO IKASGAIAK.....	22
HEZKUNTZA DUINA.....	23
HAUTAZKOEN EGUNGO EGOERA DATUAK HARTUTA.....	24
MARKO ALDAKETAREN BEHARRA.....	25
HIRUGARREN ELKARRIZKETATUA - INTERPRETAZIOA.....	26
AUKERATU BEHARRA: HIZKUNTZA EDO ESPEZIALITATEA.....	27
GELAKO MATERIALA.....	27
EGITURAZKO ZAPALKUNTZA.....	29
LAUGARREN ELKARRIZKETATUA - INTERPRETAZIOA.....	30
HAUTAZKOEN EGOERA.....	31
AUKERATU BEHARRA: HIZKUNTZA EDO ESPEZIALITATEA.....	31
EGOERAREN NORMALIZAZIOA.....	32
GRADUAREN DUINTASUNA.....	33
ONDORIOAK.....	35
HAUTAZKO IKASGAIEK ZAPALKUNTZAREN ERRO DESBERDINAK.....	36
BIBLIOGRAFIA.....	40

SARRERA

Ireki Lei(h)oa Euskarari Leioako Campusean antolatzen garen ikasleon euskara taldea da. Euskara taldetik hilabeteak daramatzagu txosten honen aurrelanketa gauzatzen, orain hurrengo lerroetan azalduko dugu Leioako Fakultateko euskarazko graduen egoera, eta hautazkoak euskaraz behar ditugula berresten duen txostena. Euskal ikasleok, Euskal Herriko Unibertsitatean, gure hizkuntzan ikasi ezinak sortu zigun arazo honen jabe izatean hasi genuen diagnostikoa, eta hau izan da ikerketa lanaren emaitza. EHUKo Leioako Campuseko graduak euskarazko gradu izendatuta ere, euskalduntasun hori bermatzen ez dela guztiok aho batez ikusi dugu. Unibertsitateko gradu bat “euskarazko gradu” kontsideratzeko derrigorrezko ikasgai guztiak euskaraz izan behar dira. Hori gradu guztietan bermatzen dela ukaezina da, bestela ez luketelako euskarazko gradua izendapena izango, baina arazoa derrigorrezko ikasgaiak ez direnekin gertatzen da. Ikasleon hautazko ikasgaiak gure hizkuntzan, euskaraz ikasteko ezina gradu guztietan errepikatzen da. Ez du gradu bakarrik ere arazo honetaz ihes egiten, EHUn euskarazko gradu gehienetan ikasketak burutzeko gazteleraz edo beste hizkuntza batetik pasa behar garela ikusi dugu. Problematika hau larria dela kontsideratzen dugu, gure hizkuntza hauspotu eta goi mailako ikasketetan garapena izan dezan traba hauek ezabatu behar direla ikusten dugularik. Bestela, etorkizuneko lizenziatuok, gure jardun osoa euskaraz egin nahi dugunok, ezingo dugulako euskarazko etorkizun duin bat produzitu ezta erreproduzitu.

Txosten honetan Leioako Campusean bizi dugun errealitatea erakutsiko dugu; gaur egun, 2025/2026 ikasturtean euskarazko gradu guztietan bizi den hizkuntza urraketa erakutsiko dugu. Fakultatez fakultate, graduz gradu, datu bilketa egin dugu. Datu enpirikoak bildu ditugu, errealitate guztiak kontuan hartuta. Lehen begirada batean ikusi dugu arrakala handia dela, euskarazko graduetan hautazkoak beste hizkuntza batean egitea gradu gehienetan ordaindu behar dugun ordainsaria dela. Analisia burutu ostean, ondorioak eta proposamenak luzatuko ditugu. Gure nahia ez da soilik egoera oker hau argitara erakustea, baizik eta modu kritiko batean EHUri euskara taldeko kideon proposamenak erakustea. Aipatzekoa da ere 2025/2026 ikasturtean bizi den graduen egoera ez dela ausaz gertatu den egoera bat, baizik eta EHUn

euskara plana jarraituz gauzatu den egoera dela. Beraz, EHUn bideorriaren erantzuna izan da, euskarazko graduen egoera ausazkoa ez dela erakutsiz eta, horrenbestez, egoeraren bilakaera beraien esku ere dagoela ikusten da.

HELBURUAK

Ikerketa honen helburu nagusia: **Euskal Herriko Unibertsitatean Leioako Campusean euskarazko graduetan ikasleok hautazkoak euskaraz ez egiteko, eta hurrenez, gradua osoki euskaraz ez burutzeko, arazoa dagoen aztertzea da.** Hau da, gradu guztien datu bilketa egin eta Leioako Campusean euskarazko graduetan hizkuntza urraketa gertatzen den ikustea da helburu, “euskarazko gradua” direnetan soilik begia jarritz.

Alde batetik, datu kuantitaboak aztertuta, Leioako ikasleok hautazko ikasgaien egoeraren larritasuna zenbatekoa den aztertzea dugu helburu. Sarreran aipatu bezala, euskarazko graduetan hautazko ikasgaien egoera okerra dela ikusten dugu lehen eskutik, eta datuen bidez, egoera zenbaiteraino larria den ikustea du helburu.

Bestetik, elkarrizketen bidez, datu kuantitatiboen bidez jaso ezin ditugun pertzepzioak jasotzea dugu helburu. Irakasle zein ikasleen pertzepzioa aztertzearekin, egoeraren diagnostiko gizatiarrago bat osatuz, datu objetiboetatik testigantzetara eta eguneroko bizitzan bizi duten egoerara. Pertzepzioetatik hautazkoen problematikak eragiten dituen ondorioetan sakontzea da asmoa (ikasleen garapenean, irakasleen irakaskuntza jardunean... izan ditzakeen ondorioak). Horrela, komunitate euskaldunaren barne bizitzan euskaraz ez ikasteak zein ez irakasteak eragiten dituen zapalkuntzak ikertu nahi ditugu.

METODOLOGIA

Metodologiari dagokionean, ikuspegi enpiriko eta zientifiko batean oinarritu da ikerketa. Izan ere, fakultate guztietako hautazko ikasgaien euskarazko eskaintza zenbatekoa den jakitearekin eta indarrean dagoen Euskara Planaren iruzkinak egitearekin batera; Leioako Campusean elkar-bizitzen direnen eta eskolak jasotzen eta ematen dituztenen inguruko iritziak ezagutzeko asmoa du ikerketak. Hortaz, bi alorreak uztartzearekin, datuen aniztasun eta aberasgarritasunean, gaur egungo egoeraren diagnostiko duin bat egitea dugu helburu.

Horretarako, ikuspegi metodologiko mistoa erabili da, hau da, teknika kuantitatibo zein kualitatiboak. Alde batetik, fakultate guztietan datuak bildu dira, modu objetibo batean eta datuak ukitu gabe. Bestetik, elkarrizketa sakonekin, iritzi esanguratsu eta anitzak lortzea ahalbidetzen du ikerketan. Hauek aurrez aurre egin dira eta sujetuak anitzak izan zitezen, guk aukeratuak izan dira. Euskara Planari dagokionez, indarrean dagoen eta publikoa den euskara planari iruzkinak egin dizkiogu. EHUKo euskararen planifikazioari gure kritika gehituta: hutsuneak eta aurkakotasunak argitara ateraz, hezkuntza osoari eragiten dion planteamendua nahikoa ez dela erakutsi eta duen zilegitasuna zalantzan jartzeko.

Elkarrizketa sakonen profilen aukeraketa erantzunetan aniztasuna eta aberastasuna lortzeko asmoz euskarazko graduatan kokatzen ditugun profil gakoak bilatzea izan da bidea. Hau da, elkarrizketa-sakonak egin dira: Ipar Euskal Herriko Gizarte eta Komunikazio Zientzietako ikasle bati, Hego Euskal Herriko Hezkuntza Fakultateko ikasle bati, Zientzia eta Teknologia Fakultateko irakasle bati eta Gizarte eta Komunikazio Zientzietako zein Arte Ederretako irakasle bati.

Alabaina, elkarrizketa sakonak egitea erabaki da, gai polemikoa izaterakoan norberak egoerarekiko duen iritzia modu ireki batean azaltzeko eta erakusteko zialtasunak aurreikusi direlako. Horrela, modu pertsonalago batean eta txostenaren intentzioa erakutsita partaideak gehiegi zabalduko zirelakoan pentsatua.

EUSKARA PLANAREN AZTERKETA

Errektoretzak argitaratutako euskararen IV. plan gidari hau 2027 arte indarrean egongo da eta, hain zuzen, orain arte euskararen harira egindako ekintzak aipatu eta etorkizunean egingo direnak azaltzen ditu. Hala eta guztiz ere, idatzi hau zehazki aztertuz gero, akatsak eta kasu batzuetan gezurrak, argi ikusten dira eta Euskal Herriko Unibertsitatean euskarak behar duen garrantzia ez zaio ematen. Hori dela eta, esan bezala guretzat nabarmen aldatu beharreko puntuak azpimarratu ditugu hurrengo lerroetan.

“Nazioartekotzea zuzenean dago lotuta eleaniztasunarekin; gure hizkuntza ofizialez gaindi, geroz eta kreditu gehiago eskaintzen dira UPV/EHU ingelesez gradu askotan eta graduondokoan. Hiru hizkuntzen arteko oreka mantentzea erronka berria dugu, eta eleaniztasunak dakartzan aukerak eta arazoak kontuan hartu beharko dira, geroz eta gehiago, euskararen kudeaketa egitean.” (10. orria)

Oso lausoa da hemen esaten dena. Eleaniztasuna bazegoen lehenago ere (euskara / gaztelania). Kontua ez da hiru hizkuntzen arteko “oreka” bilatzea. Kontua da “Eleaniztasun planak” hiru hizkuntzak tratatu behar dituela. Hizkuntza bakoitza zergatik erabiltzen den eta zertarako. Hori dela eta, hizkuntza bakoitzak bere lekua izan beharko du, eta ez “oreka”. Adibidez, garbi dago euskarak askoz ere presentzia eta garrantzi handiagaoa izan behar duela beste bi hizkuntzak baino, EHU delako munduan komunikazio espezailizatua euskaraz egiten duen unibertsitate bakarra. Gainera, ezin da egin eleaniztasun-plana euskara kontuan hartu gabe eta, ondoren, euskara- planaren bidez saiatu konpontzen sortzen diren arazoak.

Eraldaketa digitala eta adimen artifiziala (11 orria).

Une honetan badakigu eredu modura erabiltzeko euskarazko testu espezializatuen urritasuna dela AA euskarara garatzeko oztopo garrantzitsu bat. Hala ere, horri aurre egiteko adimen artifiziala erabiltzea bide erraza bada ere, ez da egokiena; testu espezializatuak adituek sortu behar baitituzte nahitaez.

VII. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, 16-24 urte bitarteko biztanleen % 74,5 euskaldunak dira. Falta da gaineratzea % 16,1 euskaldun hartzaileak direla. Guztira, adin-tarte horretan % 90,6ek euskara ulertzeko gaitasuna behintzat badute. Deigarria da % 80tik gora dagoela unibertsitatera sartzeko probak euskaraz egiten duten ikasleen kopurua.

Urtez urte ehuneko hori igotzen joan da, baina 2023an jaitsi egin zen, aitzitik, ikasleen profila ez zen aztertu, ezta zergatik gertatu zen atzera egite hori ere.

Unibertsitateko euskararen erabilera aipatzen da (Administrazio eta Zerbitzuen lanpostuetan eta arlo informalean), baina erabilera formal eta akademikoak ez dira aipatzen (11-12. orr).

Ez al dira unibertsitatearen bereizgarri erabilera formal eta akademikoak? Horiek ez al dira kontuan hartzen erabilera azterketa egitean?

“Euskaraz matrikulatzen diren ikasleen kopuruak gora egin du” (13. orr.).

Ez da esaten % 53 direla euskaraz matrikulatzen direnak eta alde handia dagoela 16-24 urte bitarteko euskaldunen ehunekotik, eta baita unibertsitatera sartzeko probak euskaraz egiten dituztenen ehunekotik ere. Berriro ere, aztertzen al da zein profil soziolinguistiko duten EHUra sartzen diren ikasleak? Jarraipenik egiten al da? Zergatik matrikulatzen dira edo ez dira matrikulatzen euskaraz? Horrez gain, euskara-gaitasuna egiaztatua duten jardunaldi osoko irakasleak % 70 badira, nahikoa lirateke etorkizunean euskaraz ikasi nahi duten ikasle guztiei eskaintza hori bermatzeko?

“Irakasle-plaza elebidunen aldeko politika” (16. orr.)

Kontuz kontzeptu honekin, plaza horiek “euskaradun” izendatu beharko liratezke. Izan ere, badirudi “elebidun” terminoa gaztelania eta ingelesa dakitenei erreferentzia egiteko ere erabiltzen dela orain.

“Euskaraz ikasten ari diren ikasleen komunikazio-gaitasunak hobetzeko proiektuak sustatu” (17. orr.)

Ez dira aipatzen horretarako propio ikasketa-planetan sartuta dauden irakasgaiak, ez horien irakasleak ere.

“Horietan guztietan oinarrituta, aurrera begira jarri nahi izan dugu, baina garbi izanik plan gidari honetan epe labur eta ertainerako helburuak eta ekintzak landu behar genituela, asmo onak izanda ere ezin ginela aurrerago joan, berez ez dagokigulako, eta bereziki azpimarratu helburuen eta ekintzen egingarritasuna edo benetan gauzatzeko edo aurrera eramateko aukera” (12. orr.)

Egia da epe laburrean ezin dela milaka pertsonen hizkuntza ohitura aldatu, baina horrek ez du esan nahi arazoa aipatu eta hortxe utzi behar denik. Izan ere, modu horretan hurrengo plana ere epe laburrekoa izango da eta ez da aurreapausorik emango. Gainera, aldaketa guztiek dute hasiera bat eta kasu honetan ere aldaketa txiki batekin has gaitezke, pixkanaka handituko dena.

“lehentasunezko gaia izan da graduen irakas-eskaintza euskalduntzea, batez ere nahitaezko ikasgaietan. [...] hautazko ikasgaietan urratsak egin dira, baina oraindik bada bidea egiteko” (13. orr.)

Hein batean hautazko ikasgaiak nahitaezkoak dira gutxieneko kredituak lortu eta gradua amaitu ahal izateko. Hau da, hasiera batean beharrezkoak diren ikasgaiak euskaldundu diren

arren, hautazkoei begira ez da ezer egin eta horrek esan nahi du, nahitaezko ikasgaiak ez direla euskaraz eskaintzen. Izan ere, kasu askotan ezin da gradua amaitu erdarazko hautazko bat aukeratu gabe.

"UPV/EHU" (idatzi guztian zehar)

Hasteko, gaur gaurkoz "UPV" desagertu egin da, baina hau idatzi zenean oraindik existitzen zenez, beste puntu batetik aztertuko dugu. Idatzi hau euskarak unibertsitatean duen presentzia aztertu eta hobetzeko dago egina eta, hortaz, gutxienekoa da unibertsitatea izendatzeko siglen ordena alderantziz ipintzea. Hots, lehenengo euskarazkoa (EHU) eta ondoren gaztelaniazkoa (UPV).

"leku berezia eskaini nahi diegu euskaraz lan egiteko lanabes digitalei (hizkuntza-teknologiaren eta adimen artifizialaren laguntzaz sortutako tresnak, batetik; eta softwareak eta aplikazioak, bestetik)" (19. orr.)

Aipatzen diren lanabes digitalak geroz eta hobeak diren arren, oraindik ere itzulpen akats larriak egiten dituzte, ondorioz, ez da bermatzen kalitatezko euskara zerbitzua.

"Euskaraz eskaintzen diren graduako hautazko irakasgaien kopuruaren hazkundera. Helburua: %5eko igoera"(25.orr.)

Euskara plan honetan garbi ageri da euskaraz eskainitako hautazkoekin dagoen arazoa konpontzeko asmorik ez dagoela, % 5eko igoerak ez lieke gradua euskara hutsean egin nahi duten ikasleen beharrei erantzungo eta, beraz, oraindik zenbait gradu ezingo dira bukatu erdarazko irakasgai bat aukeratu gabe. Hori gutxi balitz, kontuan hartu behar litzateke hautazko bat euskaraz hautatzeko aukera egotea eskubide bat izan behar litzatekeela euskaraz ikasi nahi duen jendearentzat.

“Ikastegi eta zerbitzuetan telefonoz nahiz aurrez aurre harremana euskaraz eskatu eta ematen den ehunekoa. Helburua: %75 “ (25.orr.)

Edozein zerbitzu publikotan euskaraz artatua izatea eskubide bat da, beraz, % 100ean harremana euskaraz emateko gai den jendeak eman behar luke zerbitzu hau, beste nolabait esanda, lan postu hauetarako euskara maila baten eskakizuna derrigorrezkoa izan behar litzateke hizkuntza eskubideak bermatzeko. Puntu hau berriro ere adierazgarria da erakusteko euskara plan honek ez duela euskararen egoera hobetzeko nahirik, oro har, esan genezake 25. orrialdean erakusten dela hori.

“1. eranskina: graduko ikasketetan 2023-2024 ikasturteko nahitaezko irakasgaien eskaintza hizkuntza bakoitzean, campuska. Ikasketa planak jasotako nahitaezko irakasgaien kredituekiko, hizkuntza bakoitzean dagoen eskaintza jaso da, kanpoan utzirik praktikak eta gradu amaierako lanak.” (33-34.orr.)

Taula honetan (ikus 1. taula) euskarazko zutabeen 100 baino zenbaki txikiagoa duten graduak ezin dira euskaraz hasi eta euskaraz amaitu osorik. Hortaz, Leioan dauden bost graduk ez dute eskaintzen guk ikasle bezala dugun hizkuntza eskubidea, hau da, euskaraz ikastea.

“2. eranskina: hizkuntza bakoitzeko hautazkotasuna graduko ikasketetan 2023-2024 ikasturtean.” (35-39.orr.)

2. eranskinean agertzen diren datuak engainagarriak dira (ikus 2. taula), zenbakiak 100 baino handiagoak izateko aukera dagoelako. Beraz, euskarazko zutabeen agertzen diren ehuneko altuak ez dira ehunetik kalibratzen, baizik zenbaki altuagoetatik. Gainera, ikasleek zenbait gradutan hautazko irakasgaia aukeratzeko garaian, ezin dute euskaraz ikasten jarraitu, espezialitate batzuk ez baitute euskarazko eskaintzarik. Hortaz, ikasleok behartuta gaude espezialitatea edo hizkuntza aukeratzea, ez baitago aukerarik biak batera egiteko.

“3. eranskina: bikain ziurtagiria.” (41-43.orr.)

Bikain ziurtagiriari dagokionez (ikus 3. taula), Leioako campuseko zenbait ikastetxek oraindik ez dute ziurtagiri hori lortu, nahiz eta unibertsitate osoan euskara plan estrategiko baten ardatz izan. Ziurtagiria eskuratzea borondatezko prozesu bat izanik, askotan ez du ekartzen benetako hizkuntzaren normalizazioa, baizik eta ekimen puntual edo sinboliko baten emaitza. Ondorioz, EHUK Leioan ezin du ziurtatu administrazio eta zerbitzuetan euskara bermatua egotea ohiko hizkuntza gisa.

“4. eranskina: administrazio-atalak.” (45-47.orr.)


Leioako campusean euskara ez da zerbitzu hizkuntza bat bezala bermatzen eta hizkuntza eskakizuna ez da beti betetzen. Euskararen presentzia irregularra da, langileen hizkuntza gaitasun eskasagatik eta dokumentazioaren nagusitasunagatik. Honek administrazioan euskararen erabilera sistematizatua oztopatzen du, ikasle zein langile euskaldunen hizkuntza eskubideak urratuz.

Honekin guztiarekin ondoriozta daiteke euskararen egoera hobetzeko helburua ez dela betetzen, txikikeriak baitira egin diren aldaketak arazo handiaren alboan. Hau da, oraindik ere urrats handiak daude egiteko hezkuntza euskalduna %100ean bermatzeko eta ez dirudi pauso horiek eman nahi direnik.

DATU KUANTITATIBOAK

Metodologia atalean aipatu bezala, ikerketa honetako atal honetan datu errealak bildu ditugu, hein batean, horiek erakusten dutelako benetako egoera. Horretarako, Leioako kanpuseko fakultate bakoitzeko hautazko guztiak aztertu ditugu eta horietatik euskaraz zenbat eskaintzen diren eta ez diren zenbatu ditugu. Jarraian, grafiko eta taulen bitartez adierazita dago hori.

Kanpuseko hautazkoak




Kampus mailan 285 hautazko eskaintzen dira guztira, horietatik 172 euskaraz direlarik. Gainontzeko 113 hautazkoetatik 6 ingelesez bakarrik daude eskura, guztiak Zientzia eta Teknologia fakultatean, eta 107 hautazko gaztelania hutsean eskaintzen dira. Horrela, hautazko irakasgaien % 60,4a soilik dago euskaraz bermatuta, ia % 40a erdaraz baitago.

Datu orokor hauek ateratzeko, graduen eta fakultateen artean errepikatzen diren hautazkoak ez dira kontuan hartu. Hau da, gradu ezberdinetan hautazko berdin bat eskaintzen bada, hautazko hori bakar moduan zenbatu da. Adibidez, euskara eta euskal kultura hautazkoa Hezkuntzako zein Medikuntzako gradutan eskaintzen da, baina irakasgai bat moduan kontatu da.

Grafikoan azaltzen diren ehunekoek arazo linguistikoa agerian uzten badute ere, hainbat fakultate zein graduetako egoera zeharo ezberdina da, batzuetan arazo hau hutsala den bitartean, beste batzuetan egoera are larriagoa da. Ondorioz, merezi du fakultatez fakultate egoera nolakoa den aztertu eta sakontzea, hauen arteko ezberdintasunak nabarmenak baitira.

- **Gizarte eta Komunikazio Zientzien fakultatea**

GKZ hautazkoak



Gizarte eta komunikazio zientzien fakultatean, 59 hautazko eskaintzen dira gradu guztietako datuak kontuan hartuta. 59 irakasgai horietatik 42 soilik daude euskaraz, beraz, 17 hautazko gaztelaniaz soilik egin ahal dira; hau da, hautazkoen % 71,19a euskaraz bermatzen den arren, % 28,81a gaztelaniaz soilik dago.

Dena den, fakultate honetako graduen artean alde nabarmenak daude hautazkoen eskaintzari dagokionez. Izan ere, kazetaritza, ikus-entzunezkoa, publizitatea eta hauek barnebiltzen dituzten gradu bikoitzetan, 31 hautazkotatik denak eskaintzen dira euskaraz, eta ondorioz, gradu hauetako ikasleek ez dute hautazkoen zapalkuntzarik jasaten.

Aldiz, Soziologia, Politika Zientzia eta bi hauen gradu bikoitzeko ikasleei 29 hautazkotatik 12 soilik eskaintzen zaizkie euskaraz eta 17 gaztelania hutsean. Hortaz, gradu hauetan fakultateko datu orokorrak islatzen ez direla ondorioztatu daiteke, % 41 bakarrik eskaintzen delako euskaraz.

• Hezkuntza Fakultatea

Hezkuntza fakultateko kasua berezia edo ezberdina dela esan dezakegu, izan ere, hautazkoen inguruan baino, espezializazioen inguruan hitz egin behar dugu. Fakultate honetan 3 gradu eskaintzen dira: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Gizarte Hezkuntza; eta hiru gradu hauetan eskaintzen diren hautazkoak oso gutxi dira, denak euskaraz egiteko aukera dutelarik.


Euskararen Arauak eta Erabilerak

Komunikazioa Euskaraz: Hezkuntza eta Gizarte Arloak

Erljiioaren Fenomenologia

Hautazkoak

Hala ere, gradu bakoitzeko azken urtean espezializazioak egin behar dira, hau da, gai jakin bat hautatu eta bertako irakasgaiak egin; espezializazio hauetako hainbat irakasgai ez dira euskaraz bermatzen. Gizarte Hezkuntzan, esaterako, 2 espezializaziotatik bat hautatu behar da eta bitako bat guztiz euskaraz egon arren, beste espezializazioa gaztelania hutsean eskaintzen da. Lehen Hezkuntzan ere “Musika Hezkuntza” espezializazioa eskaintzen da soilik euskaraz, beste espezializazio guztietan irakasgai bat gutxienez gaztelaniaz egin behar delarik. Azkenik, Haur Hezkuntzan “Musika Hezkuntza” eta “Haur Hezkuntzako Eskolaren Berrikuntza” dira euskara hutsean eskaintzen diren espezializazio bakarrak.




Hautazkoen eta espezializazio guztien zerrenda orokor bat hartuz, 38 irakasgaietatik euskaraz bermatzen direnak 28 direla ikus daiteke, eta beraz, % 26,3a gaztelaniaz dago. Hala ere, gradu batetik bestera eta espezializazio batetik bestera aldaketa handiak daude, beraz, ikasleek jasandako zapalkuntza linguistikoa erabat aldatu daiteke.

****Datu eta ehuneko orokorrak ateratzeko “atzerriko hizkuntza” espezializazioa ez dugu kontuan hartu, atzerriko hizkuntza hautatzea hautu moduan ulertuz eta ingelesez eskaintzea logikotzat joz. Beraz, “atzerriko hizkuntza” espezializazioko irakasgaiak ere ez ditugu kontuan hartu kanpus mailako datuak ateratzeko.***


• Arte Ederren Fakultatea

Arte Ederrak fakultateko egoera Kanpuseko larriena dela antzeman dugu. Fakultate honetan 3 gradu eskaintzen dira: Arteak; Kultura Ondareen Kontserbazio eta Zaharberritzea; eta Sorkuntza eta Diseinua. Gradu guztietako datuak kontuan hartuta, egoera honakoa da: 44 hautazkotatik 19 soilik eskaintzen dira euskaraz, % 56,8a gaztelania hutsean dagoelarik.



Hala ere, gradu batetik bestera alde nabarmenak ikusten dira. Arteen graduan, adibidez, 18 hautazkotatik 14 euskaraz eskaintzen dira (% 77,8a), zapalkuntza linguistikoa gutxien islatzen duen gradua izanik. Sorkuntza eta Diseinuan, ordea, 16 hautazkotatik 7 soilik bermatzen dira euskaraz, erdiak izatera ere iritsi gabe, % 43,75a.

Dena den, zalantzarik gabe datu larrienak Kultura Ondareen Kontserbazio eta Zaharberritzean aurkitzen dira. Gradu honetan, 14 hautazkotatik bi bakarrik eskaintzen dira euskaraz, hizkuntzarekin lotuak diren hautazkoak izanik: Euskara Kultura Garaikidean eta Komunikazioa Euskaraz, Arteak. Gainontzeko hautazkoak gaztelania hutsean aurkitzen dira eta, horrela, hautazkoen % 85,7a gaztelaniaz bakarrik dago.



• Zuzenbide Fakultatea


Zuzenbideko fakultatean gradu bakarra ematen da: zuzenbideko gradua. Gradu honetan eskaintzen diren hautazkoak 8 dira, denak 4. mailan konzentratuak eta batik bat lehen lauhilekoan. 8 hautazko hauetatik 5 euskaraz eskaintzen diren bitartean, 3 irakasgai soilik gaztelaniaz egin daitezke, honako hauek direnak: Derecho Público Autonómico Vasco, Técnicas de Comunicación y Argumentación Jurídica eta Fundamentos Históricos y Culturales del Derecho. Hortaz, hautazkoen % 62,5a eskaintzen da euskaraz.

Zuzenbideko Gradua
Komunikazioa Euskaraz Arlo Profesionalean
Euskal Zuzenbide Zibila
Derecho Público Autonómico Vasco
Kontzientzia Askatasunari buruzko Zuzenbidea
Euskararen Erabilerak Arlo Profesionalean
Lege Arloko Lanak eta Dokumentuak Prestatzeko Teknikak
Técnicas de Comunicación y Argumentación Jurídica
Fundamentos Históricos y Culturales del Derecho
8 hautazkotatik 5 euskaraz, % 62,5 euskaraz

• Lan Harremanen Fakultatea


Fakultate honetan, Negozioen Kudeaketa + Lan Harreman eta Giza Baliabideen gradu bikoitz bat eskaintzen den arren, gu Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Graduan soilik zentratuko gara, gradu bikoitza Sarriko zein Leioan ematen baita eta ez du hautazkorik eskaintzen. Hau horrela, Lan Harremanen graduan 13 hautazko eskaintzen dira, hemen ere hauek guztiak azken urtean konzentratuak. 13 irakasgai horietatik 5 bakarrik dira euskaraz eskainiak: Euskararen

Erabilerak arlo profesionalean, Ikasgelako Praktika II, Enpresen Kudeaketa III, Komunikazioa euskaraz eta Nominen kudeaketa. Gainontzeko hautazkoak, gaztelaniaz soilik egin daitezke, eta, beraz, hautazkoen % 38,5a bakarrik bermatzen da euskaraz.



• Zientzia eta Teknologia Fakultatea

ZTF




Fakultate honetan 9 gradu eta gradu bikoitz bat eskaintzen dira. Guztira 100 hautazko daude, horietako batzuk gradu batean baino gehiagotan ematen direlarik. Hautazko ikasgai horien artean 58 soilik egin daitezke euskaraz, eta hori horrela izanik, gainontzeko 42 hautazkoak erdaraz soilik eskaintzen dira, gaztelaniaz edo

ingelesez. Aipatu beharrekoa da euskarazko 2 hautazko hizkuntzarekin lotutako ikasgaiak direla: Idatzizko komunikazio zientifiko-teknikoa euskaraz eta Ahozko Komunikazio zientifiko-teknikoa euskaraz. Hala ere, gradu bakoitzetik bestera aldaketa handiak daude eta, beraz egoera oso desberdinak aurki daitezke batetik bestera.


Zientzia eta Teknologia fakultateko graduetako egoera esanguratsuenak hurrengoak dira:

Matematikako Graduaren kasuan 16 hautazko eskaintzen dira, eta horietako 6 soilik egin daitezke euskaraz. Beste 10 hautazkoak ingelesez edo gazteleraz soilik eskaintzen dira. Daturik aipagarriena 16 hautazko horietatik 14 erdaraz egin daitezkeela da, nahiz eta 3 ingelesez soilik eskaini. Beraz, hautazkoen eskaintza askoz handiagoa da gazteleraz eta horrek bakoitzaren gustuko hautazkoak aukeratzeko orduan askatasuna ematen du.

Matematikako Gradua




Ingeniaritza Kimikoko Gradua



Ingeniaritza Kimikoko graduaren kasuan 10 hautazkotatik 4 euskaraz eta 6 erdaraz eskaintzen dira, erderazko 1 ingelesez eta besteak gazteleraz izanik. Horrez gain, euskaraz eskaintzen diren 4 hautazko horietatik 2 gazteleraz ere eskaintzen direla, eta euskaraz soilik eskaintzen diren hautazkoak hizkuntzarekin lotutako irakasgaiak direla aipatzekoa da.

Geologiako Graduan 11 hautazko eskaintzen dira guztira, eta horien artean 5 hautazko soilik eskaintzen dira euskaraz. Gainontzeko 6 hautazkoak gaztelaniaz soilik daude. Gradua osatzeko 5 hautazko hartu behar dira, beraz datuei erreparaturik ikusten da gradu osoa euskaraz egin ahal izateko hautazko zehatz horiek hartzea behartuta gaudela.


Geologiako Gradua



• Medikuntza Fakultatea


Medikuntza eta Erizaintzako fakultatean lau gradu eskeintzen dira: Erizaintza, Medikuntza, Fisioterapia eta Odontologia. Fakultate honetan, guztira 28 hautazko eskaintzen dira, 19 euskaraz eta 9 erderaz.

Medikuntza eta erizaintza fakultatea



Odontologiako hautazkoak

● Euskaraz
● Erderaz



● Euskaraz
● Erderaz

Fakultate honetako gaduen artean ezberdintasun handia nabari da. Alde batetik, Erizaintzako graduan 8 hautazko eskaintzen dira, denak euskaraz. Bestetik, Odontologiako graduan 7 hautazkotatik 2 besterik ez dira euskaraz bermatzen. Hau da, hautazkoen %28,57a soilik egin daiteke euskaraz. Gainera, euskaraz ematen diren hautazkoak hizkuntzarekin lotuta daudenak dira: Euskararen Arauak eta Erabilerak; eta Komunikazioa Euskaraz: Osasun Arloa.

AZTERKETA KUALITATIBOA

Azterketaren bigarren atal honetan aipatu bezala zenbait pertsonen elkarrizketak egin dizkiegu egoera hau haien azalean nola ikusten duten jakiteko. Horretarako, arlo desberdinetako pertsonak aukeratu ditugu informazio bilketak ikuspuntu desberdinak izan ditzan.

LEHENENGO ELKARRIZKETATUA - INTERPRETAZIOA

Lehenengo elkarrizketa sakona ikasle lapurtar bati egin zaio. Soziologiako ikaslea da eta lau urte daramatza EHUn ikasten. Ikertuaren profila hagitx interesgarria iruditu zitzaigun, batik bat, Hego Euskal Herriko egoeraz oso bestelako ingurune eta errealitate soziolinguistiko zein administratibo batetik baitator. Are gehiago, profila oso baliogarria zaigu, erdal-hautazkoen problematikak sakonki eragin baitiezaioke, espainola hizkuntza harrotza zaion heinean.

EUSKARAZ IKASTEKO ARRAZOIAK ETA OZTOPOAK

Lehen elkarrizketa honetan lehen unetik agertzen da kontraesan garrantzitsu bat: euskarazko gradua hautatu du, baina esperientzia errealak erakusten dio gradua ez dela osoki euskarazkoa. Ipar Euskal Herritik hegoaldera etorri da, euskaraz ikasteko asmoz —*“iparraldean ez dagoelako aukerarik euskaraz ikasteko”*—, eta horrek bere hautua ideologikoki eta afektiboki kargatzen du: **hizkuntza hautua ez da soilik akademikoa, identitateari eta konpromiso kolektiboari lotutakoa baizik.**

Hala ere, bere kontakizunean esperientzia horrek talka egiten du errealitate instituzionalarekin. Nahitaezko irakasgaiak euskaraz badira ere, hautazkoak eta edukien zati handi bat ez. Horrek berehala erakusten du euskarazko graduaren muina ez dagoela bermatuta. Kontraesana argia da: **ikasleak ez ditu aukeratzen nahi dituen hautazkoak, baizik eta hizkuntza irizpidearen arabera posible direnak.** Horrek esan nahi du bere **autonomia akademikoa mugatua** dagoela, eta “hizkuntza ezintasun” hori ez dela pertsonala, baizik eta egiturazkoa. “Ez ditudalako hautatu nik nahi nituen gaiak”, dio; beraz, hizkuntza-eskaintza murrizak bere ibilbide intelektualaren gaineko kontrola kentzen dio.

Aldi berean, soziologiako gradua ezin du ehuneko ehunean euskaraz egin, horrenbestez, espainolez eta ingelesez ondo moldatzen ez diren ikasle horientzat zailtasun handia bilakatzen

da graduaren osaketa. Are gehiago, hizkuntza oztopoak ondorio praktiko larriak ditu: **ez du hautazkoa gainditzeko ahalmen ezta baliabiderik ere**, ondorioz, **kostu ekonomikoa eta emozionala** gehitzen dira. Suspenditzea ez da nota txar soil bat; bere hizkuntza hautuaren zigor sinbolikoa bihurtzen denez gero. Horrek azpian mezu bat uzten du: euskaraz ikastea “eragozpen” bihurtzen da, eta sistemak ez du babesten, baizik eta zigortu egiten du hautaketa hori.

IRAKASLEEN PAPEREA

Hizlariak dioenarekin argi interpreta daiteke **erakundeen babes ezaren** aurrean irakasleen eskumen bilakatzen direla euskarazko eskolak, material zein hautazkoei dagokionez. Izan ere, bizipen batzuk medio irakasle batzuen jarrerak azaltzen ditu. Berriro ere, graduaren euskalduntasun maila irakasleen konpromezuaren menpekora dela azpimarratuz; bestela esanda, **ez da eskubide bermatua, emandako pribilegioa baizik**.

Batetik, elkarrizketatuak aitortzen du zenbait irakasle saiatzen direla egoera ulertzen eta testuak euskaraz bilatzen. Bestetik, aipatzen du kasu bat non irakasleak “berdin zitzaiola” adierazi zuen, “berak ez zuela frantsesa menderatzen, euskara ere ez eta, beraz, hor konpon.”. Horrek erakusten du hizkuntza zapalkuntzaren aurrean dagoen axolagabekeria instituzionala: ez da euskararen aurkako jarrera esplizitua, baina bai ezikusiarena, inertiarena. **EHUK ez du mekanismo sistematikoa eskaintzen egoera horiek konpontzeko, eta horren orde, irakasle bakoitzaren borondatearen menpe uzten da guztia**.

PERTZEPZIO SOZIOLINGUISTIKOA

EHU eta ikasleen euskalduntasun mailari dagokionez, elkarrizketatuak aitortzen du hegoaldera etorri aurretik pentsatu zuela “beste mundu bat” aurkituko zuela: *“pentsatuz arrunt beste mundu bat, fe, beste mundu bat dela, askoz euskaldunagoa eta, eta azkenean, ohartzen gira hemen ere euskarak, euskara ez dela osoki bermatua, erraiten duten bezala”*. Hor dago elkarrizketaren gakoa: Euskal Herriaren barruan, hizkuntzaren egoerak ez du jarraitzen iparraldetik espero zen jarraikortasun ideologikoa. Hegoaldea ez da “euskararen paradisu” bat; sistemaren zein **EHUren muina berak gaztelaniaz funtzionatzen baitu**. Hori ikustea kolpe sinboliko bat da berarentzat.

Bestalde, elkarrizketatuak bere esperientzia ez du bakarka ulertzen: “gure egoera” aipatzen du behin eta berriz. Diskurtsoan kolektibotasunaren dimentsioa oso nabarmena da:

Iparraldeko ikasleak talde gisa ikusten du, ez bakarkako kasu gisa. Hori garrantzitsua da, zeren erakusten du **hizkuntza-oztopoaren esperientzia egitura sozial partekatu bat dela**, ez kasualitate isolatua. Hori dela eta, bere kontakizunak izaera politikoa hartzen du: *“graduak begirutzen ginituelarik [...] gradua osoki euskaraz saltzen dute”*. Hori ez da kexa pertsonala soilik, baizik eta diskurtso ofizialaren salaketa.

Azkenik, ikertuak euskarazko graduaren eta gaztelaniazkoaren arteko ezberdintasuna azpimarratzen du: **gaztelaniazko graduako ikasleek ez dute inolako zailtasunik**. Kontraste hori bereziki adierazgarria da, asimetria linguistikoaren funtsa erakusten baitu. **Hizkuntza hegemonikoa (gaztelania) da**: erraztasuna eta erosotasuna eskaintzen ditu. Horregatik, hizkuntza subalternoak (euskara), oztopo eta kostu bihurtzen dira. Elkarriketatuaren hitzetan: *“Euskal Herriko pertsona bat Euskal Herrian barne ikastera datorrela, eta ezin duela berak egin.”* Hori da paradoxaren gakoa: Euskal Herriko Unibertsitatea izenak adierazteagatik ere, —euskararen normalizazioa— ez da bere praktiketan gauzatzen.

BIGARREN ELKARRIZKETATUA - INTERPRETAZIOA

Bigarren sakoneko elkarrizketa Arte Ederretako eta Gizarte eta Komunikazio Zientzietako irakasle bati egin zaio. Euskarazko graduetan irakasle da, euskal hizkuntza eta komunikazio departamenduko hautazko ikasgaietan, hain zuzen ere. Unibertsitateko euskara planari lotutako irakasgaiak ematen ditu aipatutako bi fakultateetako gradu guztietan,- Arteko Graduan; Zahar Berritze Graduan; Diseinuan; Soziologian; Zientzia Politikoetan; Publizitatean; Kazetaritzan eta Ikus Entzunezko Graduan- disziplina anitzeko ikasgaiak baitira.

Galdetegi honekin euskarazko ikasgaiak ematen dituen irakasle baten iritzia eta hausnarketak jaso ditugu, graduak osoki eta modu duin batean euskaraz ez jasotzeko aferra irakasleen ahotan aurreikusten dugun bezala dagoen egiaztatzeko eta egoeraren larritasuna zein den argi erakusteko.

HAUTAZKO IKASGAIAK

Irakasle honen egoeratik, **lehen eskutik ikusten du** euskarazko graduak direnetan **euskarazko hautazko ikasgaiak jasotzeko arazoa**, gaztelerazko hautazko ikasgaien inposizioa. Ikasleek beraien heziketa osoa euskaraz jasotzeko duten ezintasuna berari askotan islatzen diotela azaltzen du; bere irakasgaiak euskara dute ardatz eta, horregatik, bera arazoaren jakitun agertzen da. Ikasle taldeek berari argitaratutako arazoak hurrengoak izan dira: Lehenengo, hautazkoak euskaraz ezin egitea, bere graduek **gaztelerazko hautazkoak aukeratzeko derrigortasuna** dutelarik euskarazko graduetan eta; bigarrenik, **irakasle askok euskararekin duten jarrera**. Irakasle askok ikasleekin egokitzapenak egiten dituzte, beti euskararen aurka doazenak alegia, zapaldua den hizkuntza are gehiago zapalduz. Horren adibide: irakasle berdinak ikasgai berdinen euskarazko taldea eta gaztelaniazko taldea izatean, euskarazko taldea txikia denean euskarazkoak gaztelaniazko taldera mugitzen ditu, integratzen ditu -integrazio hitza eufemismo bezala erabiltzen da, benetan ezabatu edo zapaldu esan nahi duenean-, hizkuntza eskubide guztiak urratuz, bere kontu eginez. Ikasleek jokabide hori soilik onartu dezakete, **botere-harreman egoera horretan irakaslearen autoritateak ikasleen hizkuntza eskubideak hausten dituelarik**.

Ikasleek pairatzen duten zapalkuntza sistematikoa dela argitara ateratzen da elkarrizketa honetan ere, **EHUK euskarazko graduetan ez du gradua modu oso batean euskaraz egin daitekela bermatu**. Egoeraren larritasuna ikusirik, ikasle askok beregana jo izan dute zenbait alditan arazoari erantzun bat ematearren. **Arazoa sistematikoa** izateaz gain, irakasle batzuen jokaeran ere begia jartzen du, hizkuntzarekiko duten jokaera zapaltzailea erakutsi behar dugularik. Hizkuntza eskubideak ikasleei are gehiago urratzen diete, euskarazko hautazkoak azkenean gazteleraz emateko beharrarekin, ikasleek beraien gogoz aukeratu dutena egin beharrean, hezkuntza bere hizkuntzan ez jasotzera derrigortuz.

Ikasle euskaldunek pairatu behar duten **hautazkoen zapalkuntzaren normalizaioa** irakasle batzuen aldetik ematen dela ere aipagarritzat agertzen da. Ukaezina da irakasleriaren zati batek hizkuntzaren minorizazioa oso presente duela. Irakasle horien ahotan ere bada EHUK

minorizazio horren aurka duen egitekoa borrokatzeko jarrera hartu behar duela eta beraien ustez ez dela ematen.

Baina irakasleriaren beste zati batek egoera horrela ikusten ez duela aitortu du. Begi bistako arazotzat ikusten du, askotan irakasle askorekin izan dituen elkarrizketak adibide gisa jarritz: “**elkarrizketa nahiko arraroak ere izan ditut irakasleren batekin**” bera Euskal Hizkuntza eta Komunikazioko irakaslea dela irakasleak jakitun direnez, berarekin dituzten elkarrizketak oso moralistak izateaz gain nahiko surrealistikak ere izaten direla aitortu digu. “*Ni euskarako irakaslea naiz, euskal adarreko irakasgaia ematen ari naiz eta jo, ikasle batek esaten dit -eske egin nahi dut idazlana gazteleraz- eta esaten diot ez dago arazorik.*” Elkarrizketatuak arazoa oso handia dela azpimarratzen du. Aukeraketa hori egiterakoan, irakasleak bere onarpena egiterakoan badago arazo bat, beraz, **arazoa identifikatzen ez duenak pribilegio egoera batetik eta axolagabekeri jokabide batetik jokatzen duela erakusten du.** Hizkuntza minorizatuarekiko egon beharreko pertzepzioa ez da agertzen irakasle askoren begietan. Euskal Unibertsitate publikoak euskararen minorizazioaren egoera ezin du onartu, unibertsitateak eta irakasleriak du erantzuteko beharra. **Unibertsitate publikoa, goi mailako hezkuntza eta ezagutza produzitzeko, elkarbanatzeko eta elkarrekin sortzeko tokia denez, ezin dira hizkuntza eskubide zapalkuntza hauek onartu. Ezin da zapalkuntza katearen parte izan.**

HEZKUNTZA DUINA

Euskal ikasleek hezkuntza modu duin batean jasotzeko buruz erantzun mardul bat proposatzen du: “**ikasleria, unibertsitateko ibilbide guztia euskaraz jasotzeko gai izan arte, hezkuntza hori ez da duina izango.**” Horretan oinarritu beharko luke euskaldunon hezkuntzak. Euskal Herriko Unibertsitate publikoaren papera hori izan behar luke, Euskal Herriarentzat eginiko hezkuntza bat. Hezkuntza hori ezin da egon euskaraz emateko ez gai, goi mailako hezkuntza publikoaren instituzio zentrala ezin da euskaraz emateko ez gai egon, onartezina da.

Euskal Herriko Unibertsitatearen funtzio nagusiei buruz, nagusiena ez litzateke ikerketa izan beharko (oso nagusia izanik). Gure gizartea kontuan hartu behar dugu, non gauden eta nortzuk garen kontuan hartu behar dugu eta, beraz, Euskal Herriko Unibertsitatearen funtzio nagusia:

goi mailako hezkuntza euskaraz produzitzea eta erreproduzitzea izan behar da. Eta gure instituzioak benetan hori bete arte, euskararen balorea benetan ikusi eta erdigunean jarri arte, ezin da dugun hezkuntza duintzat hartu.

HAUTAZKOEN EGUNGO EGOERA DATUAK HARTUTA

Arte Ederretako fakultateko euskarazko graduako hautazkoen datuak erakutsita, gaur egun EHUn bizi dugun egoera desastre bat dela argi erakusten du. Bere iritziz egoerak hesi oro gailendu ditu, egoera ez da soilik ikasleen duintasuna kolokan dagoela, baizik eta egoera jada, **herri gisa duintasuna kolokan dagoela da. Euskal Herriko Unibertsitateak ez du ikasgai guztiak euskaraz emateko gaitasunik.** Desastre egoera batean egoteak dakar horrek. Hezkuntzatik, ikasleen heziketatik herrigintzara darama bere gogoeta, duen berebiziko garrantzia azpimarratuz. **Unibertsitatean ikasleek behar dute ikasgai horiek euskaraz jasotzea, herri honek behar duelako irakasgai horiek produzitzen duten ezagutza euskaz darabilten ikasleak eta etorkizuneko profesionalak existitzea.** Hezkuntzak gizartea erreproduzitzen duela argi ikusten da, hezkuntza duin bat behar dugu, horren berebiziko garrantzia gizarte baten eraikitzean dago, gure herriaren etorkizunean eta existentzian beran.

Hautazko ikasgaiekin dagoen problematika EHUn horrela jarraitu ezin duela adierazi du. Irtenbideak ematen saiatu behar gara, urte asko daraman arazo bat baita hautazkoena. **Euskaldunok egunero jasan behar dugu hizkuntzaren minorizazioan zapalkuntza;** horregatik, askotan hautazkoen afera irakasle askok arazotzat identifikatzen ez dutela esan du. Egoerak jada gaindituta, irakasleak **hezkuntza sistemaren asimilazio espainarra onartuta, euskararen aurkako jarrerak jada erasotzat ikusten ez dituztelarik.** Horregatik, euskara oldarraldi egoera batean dagoela esaten du, soilik judiziala ez dena, soziala ere badena. EHU barruan zeuden adostasunak, euskararen zapalkuntzaren aurkako adostasunak errealitatean paper errean gelditzen dela arrazoituz. Botere eremu desberdinetatik lerro ixte bat ematen ari da eta egoera jada sostengaezina bilakatu da.

MARKO ALDAKETAREN BEHARRA

Unibertsitatean euskararen egoera, gerora gizartean erreproduzitzen den egoera bera dena, euskaldunon eskubideen kontrara aldatzen ari da. Olatu atzerakoi handi bat ematen ari da, euskarazko espazioak bermatu nahi eta zabaltzen ari direnen aurka. Baina ikuspuntu ezkor edo gordin horren kontrara, esperantzarako ikuspuntu bat ere luzatzen du. Olatu guzti honen aurka egiteko unea heldu da, indarrak batu behar dira eta egoera aldatu. Horretarako **marko aldaketa** bat ezinbestekoa dela azpimarratzen du. Pentsamendu markoa aldatu behar da, **euskaldunok ezin gara marko asimilatzaile estatalean erori**. *“esaten digute euskarazkoa eskatzea intolerante izatea dela eta ez dakit zer”* beraien markoan jokatzeko ari garelako da, indarkeria sistemiko baten menpe gaudelako oraindik ere. **Benetazko indarkeria Euskal Herriko Unibertsitatean oraindik euskarazko irakasgaiak ez irakastea dela** fermuki dio. Beti ari dira euskaldunak toleranteak izan behar garenaren kontuarekin, baina benetan herri honetan **tolerantea ez dena estatua da**.

Tolerantziaren eta bizikidetzaren terminopean jardun du euskaigintzak beti, eta paradigma aldaketa eman behar da, **jada momentua baita borroka terminoetan hitz egiteko**. Bizikidetzako delako horrek euskararen egoera beti zapaldua izango du, beti izango da zapaldua, **beti marko ideologiko estataletan jokatzeko ari garelako**. Horregatik du berebiziko garrantzia borroka terminoa mahai gainean jartzeak, euskararen aurrera pausorako, unibertsitatea barruan ere, indar handiz, borroka terminoetan planteatu behar delarik, egoeraren larritasuna oso handia delako.

“Ez gara eskatzen ari euskaraz ikastea bizikidetzak eta tolerantziak ariketa gisa. Ze bizikidetzak eta tolerantziak ariketa gisa etengabe esango digute inposatzaile batzuk garelako, eta hori da tranpa dialektiko bat. Esan nahi dut, inposatzaileak apuntatzen gaituenean gu inposatzaile gisa, hori da tranpa egitea, hori da indarkeria mota bat. Eta hori indarkeria gisa azaleratu behar dugu. Eta iruditzen zait egiten dela hori, soilik berriro, ez elkarbizitza eta tolerantzia terminoetan, baizik eta borroka terminoetan.”

Hamarkada askotan, unibertsitateko sorreratik bizikidetza eta tolerantzia terminoetan garatu da unibertsitatea, eta bide hori jada agortua dago, bide horrek ez du fruitu gehiago ematen, markoa aldatzeko beharra dago, herri gisa unibertsitatean hizkuntza politika duinak eraikitzeko bermatu behar da, bere hitzetan.

Bide hau egingarria izan dadin, bigarren elkarriketatuak, ikasle zein irakasleek elkarrekin gurditik tira egin behar dutela azpimarratzen du. Askotan beste arazo eta egin beharrekin lausotzen den borroka, erdigunean egoteko behar argiena duen borroka, beti bigarren plano batean jartzen dela esaten du.

Orain arte irakasleriaren eskutik jarri diren aitzakiak identifikatzeko garaia dela dio (irakaslerik ez dagoela, dirurik ez dagoela, ikaslerik ez dagoela...) eta **aitzakiak aitzaki gisa hartu behar dira**, eta horren gainean neurri berriak sortu. Jakina neurriak hasieran inperfektuak izango direla, baina arazoari aurre egiteko garaia da eta esku hartu behar dela azpimarratzen du.

HIRUGARREN ELKARRIZKETATUA - INTERPRETAZIOA

Hirugarren sakoneko elkarriketa Hezkuntza Fakultateko ikasle bati egin zaio. Aipagarria da esatea, aurreko ikaslea Ipar Euskal Herrikoa zela eta hortaz, ikasleen bigarren testigantza hartzerakoan Hego Euskal Herriko ikasle bat hautatu dela.

Egindako galdetegi honekin, Hezkuntza fakultateko errealitateren irakurketa bat egiteko baliagarria izango zaigu. Ikasleek, hain zuzen ere, euskaraz matrikulatutako ikasleek, unibertsitatean bizi duten egunerokotasuna ikusteko egin dugu, Hego Euskal Herriko ikuspuntua beste bat izan daitekela aurreikusirik, benetan nola den ikusteko.

Hezkuntzako ikasleak argi erakusten du euskarazko graduatan beharrezko ikasgaiak euskaraz bermatuak daudela, euskarazko gradu izendatzeko bete behar duen ezaugarria da hau, eta hori betetzen da. **Hautazko ikasgaiei buruz galdetzerakoan erantzunak nabarmenki aldatzen dira**. Bere kasuan, pribilegiozko egoera batean ikusten du bere burua, hirugarren mailako hautazkoak, osoki, adar guztiak egin ditzakelarik, euskaraz jaso ditzake. Laugarren

mailan aldiz, egoera nabarmen aldatzen dela azpimarratzen du, bere graduan, hautazkoetatik hiru ezin ditu euskaraz jaso. Lehenengo mailan izanik, oraindik ez ditu hizkuntza-ezintasunak pairatu, oraindik ez du asko pentsatu horretan, baina jadanik, lehenengo mailatik hizkuntza zapalkuntza hori ahoan dauka, jada bada euskaraz gradua amaitu ezin duelaren berri.

AUKERATU BEHARRA: HIZKUNTZA EDO ESPEZIALITATEA

Laugarren maila iristerakoan bidegurutze batean topatuko dela jadanik argi ikusten du. Lehenengo mailan egonik urruti izanda ere, egoeraren kontziente da. Ez du gazteleraz ikasi nahi, bere hizkuntzan, euskaraz, burutu nahi ditu bere ikasketak. Ziurtasun handiz esan du euskarazko hautazkoak hautatuko dituela lehenengo aldiz, bere burua gazteleraz ikasten ikusten ez duela erakutsiz. Hau da, espezialitatea baino lehen hizkuntza jartzeko beharra ikusten du, harrotza zaion gazteleran ez ikasteko hori egin behar duelarik. Baina, bere interesa duten hautazkoak gazteleraz izango bailira galdetzerakoan erantzuna aldatzen da. Hemen jada, bere gustuko espezialitate bat edo hautazko batzuk egin nahi balitu gazteleraz egin beharko lukeela esaten du. Egoera hori “putada” bat dela azpimarratzen du, espezializazioa burutzeko, bere hizkuntza alde batean utzi behar duelako.

Hizkuntza eta espezializazioaren dikotomiarekin jarraituz, bere hezkuntza garapena dela medio, euskaraz ikasteko eta hezteko erraztasuna duela esan digunean, gaztelerarekin aurkakoa gertatzen zaiola erakutsi digu. Gaztelaniazko hautazko bat egiteko ezintasuna eta aurkakotasuna erakutsi digu; bere gradua euskarazkoa izanik hautazkoak gazteleraz egiteko zergatia bilatu nahian. Beraz, banaketa hau gelditzen zaigu; ***espezialitatea hautatu beharra, eta horrekin zure gusturako ikasgaiak egiteko zure hizkuntza alboratzea. Edo, hizkuntza hautatzea, eta zure gustuko espezializazioak egin gabe geratzea, soilik euskarak eskaintzen duen adarra eginez, gustukoa ez baduzu ere.***

GELAKO MATERIALA

Gaztelaniaz jaso behar dituen hautazkoez hitz egiterakoan, larritasun puntu batekin komunikatzen da. Gaurdanik euskarazko ikasgaietan bizi duten errealitatea argitaratuz.

Euskarazko ikasgaietan testu guztiak gazteleraz ematen dizkietela esan du; jende askori, bera barne, material hori lantzeko zailtasuna kontuan hartu gabe. **Hego Euskal Herriko ikasleengan ere erderaz emandako materialetan ikasteak ezintasuna sortzen duela erakutsiz.** Klaseko materiala erdaraz jasotzen dute, eta horren aurrean ikasle hau irakasle batengana hurbildu zen egoeraz kexatzeko. Erantzuna: ***“ta esan zozten ez keitzeko, testuak itzulita okerrak dala eta material hobea dagoa erderaz eta hori dala”*** Ikasleenganako irakasleen zapalkuntza bat argitara ateratzen da hemen. Euskaraz emateko ezintasuna eta gogo falta. Argi utzi behar dugu irakasleen lana ez dela itzultzaile lanetan aritzea, baina bai gazteleraz klaseak eman ez daitezen esku-hartu behar duten eremuetan esku-hartzea, kontrakoa, aitzakitzat har genezakeen gogo falta bat delako, ezintasunaren atzean ezkutatuta gelditzen dena. Onargaitza da irakasleek gai honekiko duten jarrera, gure ikergaia hautazkoak izan arren, gelako materiala erderaz jasotzea Hego zein Ipar Euskal Herriko ikasle batentzat, berdin berdin, aurkakotasunezko praktika bat delako.

Estatu Espainiarrean kokatzen den unibertsitatea dela arrazoituz, gure gogamen markoa, mundu ikuskera; espainol asimilatua dela pentsatuz, Hego Euskal Herriko ikasleei gazteleraz ikastera derrigortzen diete. Eta hurrenez hurren, are zapalkuntza handiagoa izanik, Ipar Euskal Herriko ikasleei gazteleraz ere ikasten derrigortzen diete.

“baina da betiko asuntua azken finen, nola badakigun denek erderaaz ba, erraten duzu ba aber azkenean baldin badakizu pues ez keitzu, badakizu erderaz, entenditzen duzu, pues leitzazu erderaz ta yasta baino..”

Oso esaldi esanguratsua dugu esandako hau. “Betiko asuntua” dela esaterakoan, inposatzen den euskararen aurkako eraso errepikaz gertatzen dela esaten da, sistematiko bilakatuz, zapalkuntza sistematikoa. Ikasleen ahotan beti bizirik dagoen gaia delarik, ikasleek jada badakite egoera hori biziko dutela, unibertsitatean, eta hain zuzene ere, beraien fakultatean; etorkizuneko hezitzaileak produzitzen diren fakultatean, euskara erreproduzitzeko tresnak ez dizkiete eskaintzen. Ezingo dute modu duin batean irakatsi, ezingo dute produzitu ez dutena erreproduzitu, hau da, ezingo dute euskararen aurrera pauso handirik eman beraien heziketa erdaragatik zapaldua izan delako. Ikasle guztiek erderaz jakitearekin jolasten dute unibertsitatean. Jakintza hori ematen da, Euskal Herriko Unibertsitateak marko espainiarrak onartuak ditu euskaldunon artean, egoera espero bezain larria dela erakusten digu. Euskal

Herriko Unibertsitateak Euskal Herritarrak asimilatu garela ulertzen baitu. Horren aurrean kexarik ez egitearekin mehatxatzen da, mehatxu sistematikoa berriz ere. Gaztelaniaz jakitearen, ulertzearen eta irakurtzearen arrazoiekin; gaztelaniaz ikasi nahi dugula ondorioztatzen dutelarik. Zapalduaren gainean are zama gehiago jarritz, zapaltzaileari zama jarri ordez.

EGITURAZKO ZAPALKUNTZA

Ikasle euskaltzale honek modu kritiko batean begiratzen du bere gradu klasea. Erdal giroa da nagusi ikasleen ahotan, komunikatzeko hegemonikoa den hizkuntza gaztelera da eta euskara isolatuta gelditzen da. Berrogei pertsonako gelan soilik lauk euskaraz egiten dutela aitortu du. Ikaskideek euskaraz ondo jakinda ere, beraien artean gaztelaniaz egiteko ohitura dute eta soilik lauko talde horretako kideei adierazteko erabiltzen dute euskara. Ikasle hauen ikuspegia guztiz bestelakoa da; gaztelaniazko testuak nahiago dituzte, eta noizbait testuak irakasleek euskaratu dituztenean ikasle horiek gaztelaniaz eskatu dizkiete iraksleei. Euskaraz matrikulatutako ikasle batzuen gogamena horrelakoa da, euskara erresistentzia egoera batean topatzen da bere gune segurutzat genuen esparruan baita ere.

Ikasle batzuek, aipatu ditugun ikasle espainolarizatuek, nahiago dute hautazkoak euskaraz izatea, ez dituzte gaztelaniaz izan nahi. Oso bitxia dirudien arren, ez da horren bitxia. Beraien pentsamoldeetan, etorkizunean euskarazko C1-a beharko dutenez, C1 hori jasotzeko behar dituzten kredituak osatzeko intentzioarekin dute diskurtso hori. **Diskurtso horrek euskaldunon diskurtsoa zikintzen du, desitxuratzen du eta hizkuntza zapalkuntza soilik etekin administratibo batentzat politizatzen dute**, euskaldunon bizi beharrari so egin gabe, euskal markoa sortzearen premiari aurka eginez. Ikuspuntu kapitalista eta indibidualistak elikatzea soilik sortzen duena.

“Nere klasean asko ezitia kapazak euskeraz berba etxeko osea irakasleekin be erderaz berba etxen dabe ta irakasleak be ematen dute baimena erderaz berba etxeko aurkezpenetan ez baina aurkezpenak be danak osea danak erderia sartzen dabe ta irakasleak barkatzen dute danak”

Jarrera zapaltzaile horiek egiturazkoak direla argi ikusten dugu bere aitortza honetan. Irakasle zein ikasleek, euskaraz gradu batean, eta are gehiago, etorkizunean irakasle izango diren gradu batean, gaztelaniaz egiteko inpunitatea ikusten da. Irakasleek klasean erdaraz egiteko baimena ematen dute, aurkezpenak erdaraz egiteko aukera ematen dute... Praktika hauek: ikasle euskaldunak berez klase euskalduna izan behar zuenean seinatuak izaten dira. Nola da posible irakasleak egoera hau onartzea eta hauspotzea? Euskarazko goi mailako ikasketetan aurkezpenak beste hizkuntza batean egitea oso zapalkuntza larria da. Euskara erreproduzitu beharko litzatekeen lubakian irakasleek produzitzeko ezintasunarekin ikasleek ez erreproduzitzeko baimena emanaz.

Elkarrizketatuak etorkizuneko hezitzaileak izango diren horretan jartzen du garrantzia. Umeak irakasleengana joango dira etorkizunean, -beraiengana- eta beraiek ez dute ahalmenik izango euskaraz erreproduzitzeko. Hezkuntza euskaldunean ez zuten behar zuten hezkuntza jaso, eta ez zuten egin zitezken saiakerarik egin. Beraz, horren erantzule bakarrak beraiek izango dira. Eta kaltekin, Euskal Herria osoa izango da kaltekin. Mundu ikuskera euskalduna eraikitzeke ezintasunean jarraitzea kondenatuak izango garelarik, hizkuntza minorizatua, zapalkuntzan bizitzera kondenatuz.

LAUGARREN ELKARRIZKETATUA - INTERPRETAZIOA

Laugarren sakoneko elkarrizketa Zientzia eta Teknologia fakultateko irakasle bati egin zaio. Zientzia eta Teknologia fakultatean euskarazko graduetan irakasle da, matematika graduan gehien bat eta bere ikuspegitik jasotako informazioa esanguratsua zaigu, bigarren elkarrizketatuarekin bi fakultateko errealitatea erreparatu ostean, bigarren irakasle honekin beste fakultate bateko errealitatea ikus dezagun.

Galdetegi honekin euskarazko ikasgaiak ematen dituen irakasle baten iritzia eta hausnarketak jaso ditugu, graduak osoki eta modu duin batean euskaraz ez jasotzeko afera irakasleen ahotan aurreikusten dugun bezala dagoen egiaztatzeke eta egoeraren larritasuna zein den argi erakusteko.

HAUTAZKOEN EGOERA

Nahitaezko ikasgaiak euskaraz bermatzen direla esan digu, baina hautazkoetaz galdetzerakoan, jada errepika izan den erreakzioa izan du; ezezko garbi bat. Egoera nabarmenki txarra dela dio, matematikako graduan adibidez; hautazkoen erdia bakarrik euskaraz egin daitekela esan du. Hautazkoetan mailaketa bat ematen dela azaltzen du; matematikako irakasgaietan soilik zentratzen bagara, hau da, formazio matematiko eta tekniko jasotzeko ikasgaietan hori ematen da. Baina gero badaude beste bi hautazko ikasgai **Euskara Tekniko** deitzen direnak. Argi ikusten da, euskarazko graduetan eskaintza euskaraz emateko bidean unibertsitateak izan dituen atera-bideak gradu formakuntzarako gradu antzuak sortzea izan dela. Antzuak direla diogu, berez matematika formakuntzarekin zentzurik ez duelako, eta soilik euskara sailak hizkuntzaren egoeraren zifra hobeak jasotzeko ematen ditu. Ukaezina da euskarazko hautazko horiei aitortza eman behar zaiela, Euskara Teknikoa diren hautazko horiek norbanakoaren euskara garapenean onuragarriak baitira, baina espezializazio guztietatik kanpo daude, ez dira ezertan zentratzen, soilik euskaraz ikasgaiak bermatzeko eskaintzen dira. Horrek ikaslea inflexio puntuan jartzea dakar, hau da; **espezializazioa edo hizkuntza aukeratu beharra.**

AUKERATU BEHARRA: HIZKUNTZA EDO ESPEZIALITATEA

Irakasleak ikasleek topatzen duten egiturazko bidegurutzeaz konsziente dira. Elkarriketatuak esaten duen bezala, irakasle guztien iritzia ez dakien arren, bere iritziz kezka handiz bizi du eta bera ikaslea zenean egoera antzekoa zela gogoratu da.

Paralelismo bat egin du bere ikasle garaiarekin eta bere irakasle garaiarekin, bi iritzi berdin ikuspuntu desberdin batetik eman dezakelarik. Lehenik, ikasle izan zeneko garaian, hautazkoak gaztelaniaz ematen zirela esan du, eta horren arrazoia edo zentzua, garaiko irakasleek euskaraz ez jakitea zela ondorioztatu du. Euskara jakiten duen irakasleria bati nekez eska diezaiokezulako euskaraz eskolak ematea. Baina beste aldetik, gaur egungo egoera bestelakoa dela esaten du. Irakasleetan eta departamentuan; gaur egun dauden irakasle gehienak euskaldunak dira eta gaztelaniaz ematen jarraitzeko aitzakia- aitzakitzat hartu behar dela azpimarratzen duelarik- aspaldi desagertu dela dio, hautazkoak euskaraz

emateko gaitasuna badago. Beraz, errua inertiari ematen dio, inertiak egoera aldatu ez duela esanez. Argi ikusten da irakasleek jadanik hautazkoak euskaraz emateko gaitasuna badutela, irakasleria euskalduna bermatua dago eta berriz ere aitzakiak erabiltzen dira inertiaren gupil erdalduntzale horretatik ez ateratzeko, euskaldunon hizkuntza eskubideen aurka erasotzat ulertu behar dugun joera estrukturala da.

EGOERAREN NORMALIZAZIOA

Zientzia eta Teknologia Fakultateko errealitatea oso erdalduna dela azpimarratu du, jende askok aipatzen du *euskara zertarako?*, beraien diskurtsoa oso funtzionalista delarik: *“ingeleza baldin bada nagusi zientziaren arloan, zertarako hasiko gara lan bat hartzen, bikoizten? Eta denek ulertzen badugu gaztelera?”* Euskararen erabilgarritasun eza arrazoitzat jarrita hizkuntzaren hegemonia ingelesak duelako, hizkuntza gehiagotan egiteak soilik lan-karga handiagoa dakarrela esanez. Euskal Herriko Unibertsitateak euskararen erreproduktzioarako duen erantzunkizuna ukatzen. Oso diskurtso arriskutsuak dira hauek, oraindik gure artean bizirik dirautenak.

Hizkuntza afera erdigunean jarritz, ingelesari ematen dioten hegemonia dela eta, euskara zapaldua den moduan, gaztelania era berean zapaldua ere izan beharko zela galdetzen du, hau da, jada zientzietan ez da gaztelania erdigunean jartzen hizkuntza hegemonian, baizik eta ingeleza jartzen da hegemonikotzat. Beraz, euskararen aurkako diskurtsoa, gaztelaniaren aurkako diskurtsotzat ere ulertu beharko genuke. Testuinguru geografikoa eta soziala erdigunean jartzen du baita ere, zientzian gaztelania erreproduzitzen duten unibertsitateak munduko beste lurralde askotan emango direla esaten du, eta gure egin beharra, euskaldunon unibertsitatearen egin beharra, hizkuntza zapaldua eta minorizatua den euskara erreproduzitzeko lurraldea izan behar da, dugun lubakia delako. Irakaskuntza eta zientzia euskaraz produzitzea eta horrek dakarren euskarazko zientziaren erreproduktzioa ere ekarriko duelako. Jadanik gaztelaniaz produzitzeak zentzurik ez du, gure unibertsitateak beste egin behar bat izan beharko luke, gure hizkuntza politikak eta eskubideak defendatzeko euskarazko zientzia garatzea. Inglesaren aldeko *“diskurtso potolo”* hori entzuten duenean pentsatzen duena alegia. Irakasle eta ikertzaile horiek hegemonia ingelesari ematen badiote,

bigarren mailako mailan euskara eta gaztelera kokatzen dutenez, euskarak gaztelarak duen leku berdina edo gehiago izan beharko lukeela arrazoituz.

Irakasleek euskaraz eskolak ematearen aurkakotasunaren muina erosotasuna dela aitortu du. Bere departamentuan, bere fakultatean, garbi ikusten du; oraindik jendea badagoela, euskalduna izan arren, erosoagoa egiten zaiela gaztelera klaseak ematea. “Unibertsitatea euskaldundu da, bai, baina ez da euskaltzaletu, ez daukat hain garbi”.

Oso aipu esanguratsua; beste hitz batzuetan esanda: Unibertsitateko euskarak era kuantitatibo batean gora egin duen arren, alorre kualitatiboan ez du aurrera pausorik egin. Unibertsitatean hizkuntza gaitasuna handitu den arren, erabilera ez da handitu.

Egoera aldatzeko irtenbideei buruz ere galdetu diogu. Euskararen aurkako iritzi mardula duten irakasleen artean iritzia aldatzea zaila dela iruditzen zaio, aurreiritzi asko dituen irakasleak daude, konbentzitzea zaila dela esan du. Aukera berdintasunen alde egin behar da, horretarako beste ikuspuntu bat garatu dutenekin mahai bat zabalduz, dio elkarrizketatuak. Adostasunak lortzea edo behintzat euskararen egoera eta beharrak jende horri ulertaraztea ezinbestekoa da horretarako. Euskararen aldeko borrokan gaipen horiek lortu ez daitezen, irakasleak interes pertsonalak sartzen hasten dira: ikasgaia nortzuk eman beharko luketen, ikasle kopurua... Horiek alboratu behar dira. Arrazoimen guzti horiek diskurtso espainolista asimilatzaile batetik garatzen direlako; nola edo hala euskararen garapenari oztopoak jarri eta aitzaki txikiekin helburu amankomun bat sekula gerta ez dadin. Kamuflatzen diren jarrera horiek identifikatzen hasi behar gara, erasotzat ulertzen eta gure borroka eman dadin diskurtso horien zentraltasuna garatu ez dadin, ahal dugun guztian alboratzen.

GRADUAREN DUINTASUNA

Graduaren duintasunaren inguruan galdetu diogunean bere ikuspuntu garatua argi erakutsi digu. Matematikako Graduak bere ustez hizkuntzari dagokionez kritika asko entzuten diren arren, erralitatea bestelakoa dela azaltzen du. Bere ikasle garaiak ekarri ditu gogora; orduan, Matematika Graduan euskarazko irakasgaietan hizkuntza kalitatea eta dozentzia kalitatea oso onak zirela esan du. Euskarazko klaseetan izaten zen hori, euskaraz ikasi zezaketen ikasgaiak

asko ez izan arren, euskaraz ziren horietan oso lan ona egiten zela esanez. Irakasleek apunteen ekoizpenean lan handia egin zuten, gaztelerakoek baino apunte hobeak izatera iritsi zirelarik. Salbuespenak zeudela ukatu gabe, orokorrean euskarazko eskoletan maila oso duina zela azpimarratu nahi izan du.

Gaur egunera ekarrita, Matematikako Graduan egiten zen saiakera hori oraindik indarrean mantentzen dela esan du. Hala ere, hori soilik euskaraz direnetan gertatzen da, ez da ikasgai guztietan ematen, euskarazko graduan. *“egia da ez dela bermatzen bermatu beharko litzatekeen kopurutan, baina ematen den horietan, nik dakidala; egia da orain ni ez naizela ikasle, orduan bakarrik ezagutzen dudala pixka bat nik zer irakasten dudana eta nire kide hurbilek zer irakasten duten. Baina esango nuke kalidadea bai hizkuntzarena eta bai materiarena bermatzen dela. “*

Aipu honen bidez euskarazko eskolen kalitatea benetan ona dela bermatzen dela. Euskarazko graduatan duintasuna era partzial batean ematen da. Hori diogu, gradua osoki euskaraz burutzeko ezintasuna agerikoa delako, euskararen garapen duin honek ez du hizkuntza eskubideen zapalkuntza ematen ez denik ukatzen, baizik eta sortu diren erresistentziei aitortza egiten die.

ONDORIOAK

Helburuetan aipatu bezala, txostenaren xede nagusia Euskal Herriko Unibertsitateko Leioako Kanpusean ikasleok hautazkoak euskaraz ez egiteko, eta horrela, gradua euskara hutsean ez burutzeko arazoa benetakoa den aztertzea izan da. Helburu nagusi honi erantzunez, arazoaren existentzia argia dela ondorioztatu dugu, datu kuantitatiboek problematika erreala dela frogatzen baitute. Fakultatez fakultate eta graduz gradu datuak ikertuta, euskara hutsean eskaintzen diren graduak gutxiengoa direla ikusi da, hautazkoen problematikak egiturazko zapalkuntza linguistiko bati erantzuten diola ondorioztatuz. Euskal Herriko Unibertsitateak zapalkuntza egoera hau onartzen du, euskaldunon hizkuntza eskubideak hezkuntza prozesuan ematen dioten garrantzia ikusi dugularik.

Dena den, egoraren larritasunaren zenbaterainokoa oso aldakorra da fakultate eta gradu batetik bestera. Datu orokorrak hautazkoen ia % 40a euskaraz eskaintzen ez dela dioen arren, hainbat graduetan problematikak dimentsio handiagoa hartzen du. Hortaz, euskara hutsean egin daitezkeen gradu bakan batzuk dauden bitartean, hautazkoen hiru laurden baino gehiago erdaraz soilik eskaintzen dituzten graduak ere badaude. Beraz, zifra orokorrak guzitz distortsionatzen du errealitatea eta ez da ikasle askoren ikasketa prozesuan islatzen. Izan ere, zenbait ikaslek jasandako zapalkuntza lausotzen du datu orokor honek. Instituzioek soilik datu orokorrak irakurtzeak dakar gerora barne mailan zapalkuntza hauen onarpena eta erreprodukzioa.

Elkarrizketei dagokienez, irakasle zein ikasleen testigantzek datu kuantitatiboek erakusten duten zapalkuntza berresten dute, egoeraren larritasuna mahaigaineratzen dute eta. Zapalkuntza sistematikoaren ideia nabarmen ikusten da, eta zapalkuntza horren inguruko hainbat gako atera ditzakegu elkarrizketetatik. Gako horien artean, euskararen infantilizazioa eta gutxiespen akademikoa aipa ditzakegu. Hirugarren elkarrizketan aipatzen den moduan, euskara arbuiatua da hizkuntza akademiko moduan, izan ere, ez da material akademikoa duinki bermatzeko hizkuntza egokitzen jotzen. Horren adibide da gaztelaniaz testu akademikoak hobeto ulertzen denaren falazia, beharrezko itzulpenak egiteko aitzakiatzat erabili ohi dena, ideia horretatik ere uler dezakegu hautazkoen arazoa.

HAUTAZKO IKASGAIEEN ZAPALKUNTZAREN ERRO DESBERDINAK

Euskararen gutxiespen eta infantilizazioarekin batera, zapalkuntza linguistikoaren normalizazio argi bat ikusten da unibertsitatean. Hautazkoen datu larriek normalizazio horri erantzuten dioten bezalaxe, testigantzetatik ateratako hainbat adibide aipa ditzakegu: irakasleen axolagabekeria, euskarazko klaseetan gaztelaniaz mintzatzea eta, are gehiago lanak edo azterketak gaztelaniaz egin ahal izatea, inpunitatea... Horrela, zapalkuntza betikotu eta normalizatu egiten da, euskara salbuespen bilakatuz.

Hautazkoen datu larriek zapalkuntzaren normalizazioari erantzuten dioten bezalaxe, marko estatal espainiarrari ere erantzuten diotela nabarmendu nahi dugu, hau ere normalizatuz. Euskaraz bermatzen ez diren hautazkoei jartzen zaien alternatiba nagusia gaztelaniaz eskaintzea da, ikasle orok hizkuntza hori menperatzen duela ondorioztatuz. Alta, Ipar Euskal Herriko hainbat ikaslek ez dute zertan gaztelania jakin, eta zapalkuntza linguistikoa jasateaz gain, eskaintzen zaien alternatibak ez die balio. Horrek agerian uzten du unibertsitateak duen nazio ikuspegia zein den, izan ere, Euskal Herria marko nazional moduan ulertu beharrean, hautazkoak gaztelania hutsean egoteak Espainiako marko estatalari erantzuten dio, Ipar Euskal Herriaren eta Hego Euskal Herriaren arteko bereizketa argi bat eginez. Hegoaldean kokatzen den, baina Euskal Herria osoari erantzun egiten dion hezkuntza zentro publikoa da EHU; horrenbestez, euskaldunon babesleku izan beharko zenak, espainiar asimilazioari men egiten dio. Irakasleen hizkuntza hautua ez da soilik akademikoa, batzuek uste duten moduan; hizkuntza hautua identitateari eta konpromiso kolektiboari (nazioari) lotutako hautua da.

Ikasle askoren kexak dira gazteleraz hautazkoak jasotzeko derrigortasuna, eta horren aurrean irakasleek izan ditzaketen jarrera desberdinak ikusi ditugu. Ondorioztatu dezakegun moduan, irakasle askok euskararekiko duten jarrera ezkorra da; askotan euskarazko klaseak gaztelerazkoekin batu eta gazteleraz emanez. Bestetik, azpimarratu nahi genuke, beste ikuspuntu bat duten irakasleek euskararen aldeko borroka gauzatu dutela era berean. Beraien lan militanteagatik izan da hainbat gradutan euskarazko apunteen eta eskolen euskarazko ekoizpena. Hau eman izan denean, beraien kabuzko lanagatik eman da, egituratik ez delako horretarako gakorik eskaintzen.

Euskararen arazoa ikusten ez duenak, zapalkuntzaren normalizazioaren begi desberdinak ikusten ez dituenak, pribilegio egoera batetik irakurtzen du egoera. Pribilegio egoeratik axolagabekeriak jokatzea zilegizatzen duelarik, eta hori fermuki diogu. Unibertsitate publikoa, goi mailako hezkuntza eta ezagutza produzitzeko, elkarbanatzeko eta elkarrekin sortzeko tokia denez, ezin dira hizkuntza eskubide zapalkuntza hauek onartu. Ezin da zapalkuntza katearen parte izan, hautazko ikasgaien euskalduntzea beharrezkoa dugu.

Zapalkuntzaren normalizazioaren beste alde bat, Iparraldeko ikasleek soilik bizi duten errealitatea da. Marko espainarrean gauden honetan; erakundearen babesik eza ikusgarria da, eta, horregatik, irakasle askok euskaraz eskolak ematea ez dute bermatzen, euskaraz jasotzea pribilegiotzat hartzen baitute. EHUK ez du mekanismo sistematikoa eskaintzen egoera horiek konpontzeko eta, horren ordez, irakasle bakoitzaren borondatearen menpe uzten du guztia.

Hautazkoak euskaraz jasotzeko ezintasuna gaztelaniazko graduetakoko ikasleek ez dute, argi geratzen da hizkuntza hegemonikoa zein den, eta hizkuntza zapaldua zein den. Hori horrela, ikasleek gaztelera jakin gabe gaztelerazko hautazkoak hautatu behar dituzte, derrigortasunez, eta horiek suspenditzera kondenatuta daude. Horrek ikasleei kostu ekonomikoa eta emozionala ekartzen die, zigor bat jaso behar dute euskaraz soilik dakitenek, euskaraz ikastea sistemak zigortzen du eta.

Azkenik, hizkuntzaren edo espezializazioaren arteko hautaketaren ondorioa aipatu behar dugu. Elkarrizketatuek errepikatu duten dikotomia izan da: euskarazko ikasleek bidegurutze hau bizi behar dute: beraien hizkuntzan gradua jaso, ala kontrara, zure gustuko espezializazioa egiteko euskarari bizkarra ematea. Hainbat hautazko erdaraz bakarrik egonda, ikasle asko hizkuntza edo espezializazioaren artean aukeratzeko borrokan sartzen dira. Horrela, hainbat ikaslek euskaraz eskaintzen diren hautazkoak hartzen dituzte, hizkuntza lehenetsiz. Aukeraketa hori egin beharrak, ordea, hainbat bide ixtea ekartzen du: ikasleek baldintza normaletan (hautazko guztiak euskaraz) beste hautazko bat aukeratzeko luketeen arren, euskaraz ez izateak bideak ixten dizkie. Ondorioz, zapalkuntza linguistikoak aukeren mugaketa bat dakarrela ikusi da. Ezin dugu onartu Euskal Herriko Unibertsitate publikoan hizkuntzarekiko

banaketa hau ematen jarraitzea; euskara garapenerako oztopo izatearen erantzule jartzen baitute, arazoa hautazko horien eskaintza euskaraz ezin ematea denean.

Unibertsitatean ikasleek ikasgai horiek euskaraz jasotzea behar dute, herri honek behar duelako irakasgai horiek produzitzen duten ezagutza euskaraz darabilten ikasleak eta etorkizuneko profesionalak existitzea.

Euskaraz eskaintzen diren hautazko ikasgaien kalitateaz ere hitz egin behar dugu. Euskaraz eskaini behar diren ehunekoa hainbat fakultateetan bermatua izan zedin, euskara sailak sortutako euskara ardatz dituzten hautazko antzuak sortu izan dira eta, hauek, euskarazko ehunekoak hobetzeko plan estrategiko bati soilik men egiten diotela ikusi dugu. Kanpora begira egoera positibotzat ikus zedin.

Egunero pairatzen dugun egiturazko indarkeria honi aurka egiteko momentua da, gatazka terminoetan ulertzen dugu egoera, borrokan gaudela ez onartzea errealitatea ukatzea baita. Pentsamendu markoa aldatu behar dugula ikusi dugu, marko asimilatzaile espainarretan jolasten ari garelako unibertsitatean. Euskaldunon aurkako erasoak anitzak izaten dira, intolerantziaren hitzak esleiztzen dizkigute; euskararen hobe beharrez intolerante garela. Guretzat, indarkeria EHUn oraindik euskaraz graduak era oso batean ezin jasotzea da.

Jendarte espainolistak inposatzaile eta intolerante deitzen gaitu, joera hau egunero instituzio desberdinetatik ikusten dugu. Tranpa dialektiko bat egiten dute: inposatzaileek gu inposatzailetzat seinalatzen gaituzte. Horrenbestez, euskararen lubakia termino berri batzuetan garatzeko momentua da, gatazka eta borrokan hitz egin behar dugu. Borroka egoera batean bizirauten ari gara, eta horren aurrean, Euskal Herriko Unibertsitatean jarrera hauek erreproduzitzea onartezina da.

Ondorio hauek guztiak kontuan hartuta, atera dugun irakaspen nagusia zera da: Egungo EHUK ez duela hezkuntza duina bermatzen. Izan ere, hezkuntza duina inolako zapalkuntzarik gabeko hezkuntza bat dela uste dugu, tartean zapalkuntza linguistikorik gabekoa. Beraz, unibertsitate euskaldun eta euskaltzale batek soilik ekar dezake hezkuntza duina; Euskal Herriarentzat egindako hezkuntza bat, ikasle euskaldunon beharretara egokituta egongo den hezkuntza bat. Bigarren elkarrizketatuaren ideian berresten gara: Ikasleria, unibertsitateko

ibilbide guztia euskaraz jasotzeko gai izan arte, hezkuntza hori ez da duina izango. Duintasun honen garapenean eta heltzean izan beharko luke unibertsitateak bere funtzio nagusia: goi mailako hezkuntza euskaraz produzitzeko eta erreproduzitzeko.

Horregatik guztiagatik, EHUri zein dagozkien gainerako instituzioei ardura politikoak hartu eta unibertsitate euskaldun baterantz aurrerapausoak egitea exigitzen diegu, hautazkoak euskaraz bermatzea lehentasun nagusitzat izanik. Bada garaia auzi linguistikoaz gatazka terminoetan hitz egin eta neurri euskarafobo eta espainolistak seinalatzeko.

BIBLIOGRAFIA

Euskal Herriko Unibertsitatea. (2024). *Euskal Herriko Unibertsitateko euskararen IV. plan gidaria 2023-2027*. [On-line] eskuragarri hemen: [Linka](#) [Kontsulta eguna: 2025/11/1]

Euskal Herriko Unibertsitatea (2025). *Arte Ederren Fakultatea*: <https://www.ehu.eus/eu/web/arte-ederren-fakultatea> [Kontsulta eguna: 2025/10/08]

Euskal Herriko Unibertsitatea (2025). *Bilboko Hezkuntza Fakultatea*: <https://www.ehu.eus/eu/web/bilboko-hezkuntza-fakultatea> [Kontsulta eguna: 2025/10/08]

Euskal Herriko Unibertsitatea (2025). *Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea*: <https://www.ehu.eus/eu/web/gizarte-komunikazio-zientzien-fakultatea> [Kontsulta eguna: 2025/10/05]

Euskal Herriko Unibertsitatea (2025). *Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea*: <https://www.ehu.eus/eu/web/lan-harreman-gizarte-langintza-fakultatea> [Kontsulta eguna: 2025/10/08]

Euskal Herriko Unibertsitatea (2025). *Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea*: <https://www.ehu.eus/eu/web/medikuntza-erizaintza-fakultatea> [Kontsulta eguna: 2025/10/12]

Euskal Herriko Unibertsitatea (2025). *Zientzia eta Teknologia Fakultatea*: <https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea> [Kontsulta eguna: 2025/10/12]

Euskal Herriko Unibertsitatea (2025). *Zuzenbide Fakultatea*: <https://www.ehu.eus/eu/web/zuzenbide-fakultatea> [Kontsulta eguna: 2025/10/08]